

Argitalpen-Industria

Kulturaren Euskal Planaren Argitalpen Industriaren
taldearen bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

Indice

SARRERA	3
AMIA AZTERKETA	4
SENDOTASUNAK	4
AUKERAK	6
AHULGUNEAK	8
MEHATXUAK	11
3. JARDUERA-LERROAK	15
LEHENTASUNEZKO JARDUERA-LERROAK	18

Sarrera

Euskal argitalpen-sektoreak oraindik ez du kultur produktuaren kalitatea ziurtatu, eta hori oso lotuta dago egiletasunarekin, agente eta enpresen egoerarekin, merkatuaren egungo egoerarekin eta ahalik eta politika integral eta koordinatua definitzearekin. Beraz, beharrezkoa da arazoa modu globalean kudeatzea, liburuaren arloko erakundeak eta agenteak bilduko dituen organo misto baten bidez.

EAEEn laguntzak ematen zaizkie euskaraz idatzitako liburuei (kostu-prezioan erosi eta liburutegietan banatu), baina, diru-laguntzetan oinarritutako politika hortaz haratago, ez dago gaztelaniazko eta euskarazko liburuari buruzko politika orokor bat sektorearen problematika guztia bere baitan hartuko duena.

Bi tresna proposatzen dira irtenbide modura: batetik, liburuari buruzko erakunde bat sortzea, liburu-politikaren lerro estrategikoak eta kudeaketa adostuko dituen, edo bestetik, kultur industriak bilduko dituen erakunde orokorrago bat sortzea, liburu-politikari buruz ere arituko dena.

Dena den, sektoreak arrakasta izango du euskal egileek kalitatezko lanak egiten badituzte eta egile horiek ezagutzen badira; beraz, behar beharrezkoa da egileak sustatzea eta ezagutaraztea.

Liburutegi-sistema eta irakurzaletasuna bultzatzeak ere eskaria handituko lukete.

Euskarazko eta gaztelaniazko liburuaren arazoa ezberdinak dira, baina zenbait euskal argitaletxe bi argitalpen-mota horiekin ari dira lanean, eta horri esker, bataren eta bestearen arazoek gero eta antzekotasun gehiago dituzte, enpresa-ikuspuntutik.

AMIA AZTERKETA

SENDOTASUNAK

Prestakuntza

- ♦ EAEk kultura-maila altua du eta hezkuntza-sistema sendoa. EAEk testuliburuak zein bestelako liburuak kontsumituko dituen publiko finkoa dauka, hezkuntza ertainaren eta goi mailako hezkuntzaren maila altuagatik, biztanleriaren adin-banaketagatik eta eskolatzegatik.

Sorkuntza

- ♦ EAEko argitalpen-produktuaren kalitatea ona da.
- ♦ Euskaraz idazten duten idazleak eta euskarazko tituluak gehitzen ari dira.
- ♦ Kontsumitzaileek argitalpen-produktuaren prezioari buruzko iritzi ona dute, oro har.
- ♦ Bi hizkuntzatan sortzeak eta argitaratzeak merkatu desberdinak osatzen ditu (egileak ezagutu, tradizio gurutzatuak...).
- ♦ Kalitatezko sortzaileen beste belaunaldi bat heldu da.

Ekoizpena

- ♦ Industria militantea da –batez ere, euskarazko argitalpena– eta profesionalizatua.
- ♦ Azken hamar urteetan, euskarazko liburuen berrargitalpenak joera ona izan du. Horrek nolabaiteko egonkortasuna ematen dio liburuen ekoizpenari eta, batzuetan, sektorea bultzatzen du, izaera ezegonkorra badu ere.
- ♦ Euskarri ekonomiko nagusia eskolako liburuak diren arren, batez ere, literaturaren ekoizpenak dinamizatzen du ekoizpena.
- ♦ Kultur merkatuek gero eta bide autonomoagoak bilatzen dituzte, eta ihes egiten dute korporazio ekonomiko handietatik. Horrek sortzeko askatasuna eta bizitasuna ematen diete, jokabide finkoak dituen sektore tradizional baten barruan.
- ♦ Sorkuntza- eta salmenta-modu berriek ekimen txiki eta autonomoei mesede egiten diete.

- ♦ Bertako merkatua ondo ezagutzen da, aldizka merkatuari eta kontsumitzailearen tipologiari buruzko azterketak egiten baitira, hainbat aldagaien bidez.
- ♦ Nolanahi ere, tirada txikiko titulu asko argitaratzea ez da indargune bat ikuspuntu ekonomikotik begiratuta, bai ordea kultur aniztasunaren ikuspuntutik.
- ♦ Testuliburen argitaratzaileek egiturazko abantaila daukate.
- ♦ Euskal argitaratzaileen taldea intrusiozko elementu bat da sektorean.

Banaketa, sustapena eta zabalkundea

- ♦ Ideiak transmititzeko baliabide teknikoak gero eta eskurago daude eta gero eta merkeagoak dira.
- ♦ Bi hizkuntzatan sortzeak eta argitaratzeak merkatu desberdinak osatzen ditu (egileak ezagutu, tradizio gurutzatuak...).
- ♦ Aldizkari birtualak eta aldizkako argitalpenen mundua dira etorkizuneko irakurleriaren oinarria.
- ♦ Sektorearekin lotutako sustapenak tresna egokia dira liburua irakurleriari zabaltzeko.
- ♦ Liburu-azoketan parte hartzen da eta Madrilen edo Bartzelonan profesionalak egoten dira euskal liburua eta argitalpen-sektorea ezagutarazteko, nahiz eta, askotan, komunikabideek eta sektoreko agenteek ez aintzakotzat hartu.
- ♦ Kontsumitzaileek argitalpen-produktuaren prezioari buruzko iritzi ona dute, oro har, hainbat inkestaren arabera.
- ♦ Ez da zalantzarik egiten euskal liburua Latinoamerikara bidaltzeari buruz.

Eskariak eta merkatuak

- ♦ Bertako merkatua ondo ezagutzen da, aldizka merkatuari eta kontsumitzailearen tipologiari buruzko azterketak egiten baitira, hainbat aldagaien bidez.
- ♦ Gazteenek teknologia berrietarako duten erraztasuna kontuan hartu beharreko aldagaia da etorkizunean edozein sektore-estrategia egiteko.
- ♦ Kultur merkatuek gero eta bide autonomoagoak bilatzen dituzte, eta ihes egiten dute korporazio ekonomiko handietatik, eta horrek sortzeko askatasuna eta bizitasuna ematen diete.

Politikak

- ♦ Liburu eta liburutegien politika garrantzi handikoa izan da beti, eta aurrerantzean ere hala izango da, arrazoi kulturalak eta ekonomikoak direla eta.

Gizartea

- ♦ EAEko biztanleriaren ezaugarriek (ikasketak, habitata eta gizarte-maila) liburuak irakurtzeari laguntzen diote, ezugarri horien arteko korrelazio positiboagatik.

AUKERAK**Prestakuntza, ezagutza eta ikerketa**

- ♦ Etorkizunean egun baino aukera hobeak sortuko dira *off line* (publizitatea, katalogoen sustapena, Internet bidezko salmentak) eta *on line* (deskarga-salmentak) argitalpenak egiteko.
- ♦ Euskara gero eta leku hobe hartzen ari da argitalpen-sektorean. Argitalpena eta fakturazioa asko hazi dira.

Sorkuntza

- ♦ Sarearen bidez, autoreak publiko askotara irits daitezke. Ezagun bihurtzea da arazoa.
- ♦ Idazle berriak sortzea aukera bat da indargune bat baino gehiago, komunikabideen aintzatespenik ez badute.
- ♦ Elebitasunak itzulpenari laguntzen dion, alegia, kanpokoarekin harremanetan egoteari, eta horrek sortzeko, zabaltzeko eta informaziorako aukerak sortzen ditu.

Ekoizpena

- ♦ Garrantzitsua da argitalpenaren enpresa-egitura eta egitura profesionala produktuak baino gehiago bultzatzea.

Banaketa, sustapena eta zabalkundea

- ◆ Komunikabideek EAeri buruz duten interesa beste modu batera bete beharko litzateke.
- ◆ Estatu-mailan zein nazioarteartean zabalduko komunikabide-taldeak ditugu (prentsa, irratia eta telebista).
- ◆ Euskal kultura kanpoan zabal daiteke, bereizketarik gabe eta sorkuntza eta egileak buru dituela, itzulpenaren, sustapenaren eta beste profesionalekin izandako hartu-emanen bidez.
- ◆ Komunikabideek lan handia egin dezakete argitalpenak zabaltzeko, baina, aldi berean, gero eta erlazio arriskutsuagoa dago iragarki ordainduen (publizitatea) eta kritiken (informazioa eta iritzia) artean.
- ◆ Euskal liburuari Internet bidezko salmeta komeni zaio, baita poesiari ere.
- ◆ Jabari publikoko lanak Cervantesvirtual.com helbidetik deskargatzeak izan duen arrakasta izan dezakete jabari publikoko euskal lanek ere.

Eskariak eta merkatuak

- ◆ Argitalpen-industriaren jarduera-eremua aldatu egin da irakurtzeko ohiturak aldatzen ari direlako eta teknologia berriak eta ezagutza eskura ditugulako.
- ◆ Herri elebiduna izatearen ondorioz, euskal enpresek lekua egiten dute bertako merkatuan eta euskaraz argitaratutako liburu gehiago fakturatzen dira. Hala, gaztelaniazko argitalpenaren beheraldia konpentsatzen da.
- ◆ Euskal irakurleek asko irakurtzen dute (beste hizkuntzetan) eta kultur-produktu asko kontsumitzen dituzte, nahiz eta beren baliabide ekonomikoak beste produktu batzuetan ere erabili behar izan.

Kultur politika

- ◆ Liburuaren politika nolabaiteko ikuspegi integral, industrial eta kulturaletik berdefinitzeko aukera dago.

Gizartea

- ◆ Mundu guztian nabarmena da informazioaren teknologia berriak erabiltzeko joera. Teknologietan gertatzen ari diren aurrerapen horiek eragin zuzena izango dute sektorean, eta argitalpenari berari, irakurtzeko ohiturei, hizkuntz ingeniariari, euskarri elektronikoei, hezkuntza arautuari eta ez arautuari... eragingo diote.

AHULGUNEAK

Prestakuntza, ezagutza eta ikerketa

- ◆ Prestakuntzarako zentro espezializatuak falta dira.
- ◆ Argitalpen-sektoreko langileen kualifikazio-maila nahiko baxua da.
- ◆ Precisa-k 2001eko irakurketa-ohiturei buruz egindako azterketa ez dator guztiz bat hemengo adin-piramidearekin: ez du Nafarroako euskaldunei buruzko informaziorik ematen, ezta 16 urtetik beherakoei buruz ere (gurasoek seme-alaben irakurtzeko ohiturei buruz esandakoa izan ezik).

Sorkuntza

- ◆ Euskal argitaletxeetara lan asko eta kalitate onekoak iritsi arren, Euskal Herriko merkatua txikia da eta, gainera, ez da guztiz elebiduna euskaraz eta gaztelaniaz.
- ◆ Ekimen partikularren bidez liburuak argitaratzeak sektorea desitxuratzen du.
- ◆ Sektorean ohikoak dira *freelance* erako kolaborazioak.
- ◆ *On line* argitalpenek arrakasta txikia izan dute.

Ekoizpena

- ◆ Argitaratzaileak nahi baino etekin gutxiago ateratzen ditu, eta hori nabaritu egiten da egituretan, baliabideetan eta garapenerako aukeretan. Aldi berean, argitalpenaren industria bera eta sektorearen finantza-bitartekoak baldintzatzen ditu.
- ◆ Argitaletxeak txikiak izaten dira, eta askotan, noizean behin bakarrik argitaratzen dute.
- ◆ EAEko merkatuan parte hartzen duten argitaletxeen % 70 EAetik kanpokoak dira.
- ◆ Autoedizioak eta erakundeen argitalpenek lehia egiten dute.
- ◆ Neurritz gain ekoizten da, eta ondorioz, lan askok eta askok segituan uzten diote **eskaintza bizi** izateari.
- ◆ Aleen argitalpena behera egiten ari da nabarmen, batez ere, gaztelaniazko argitalperaren beherantzko joeraren ondorioz.

- ♦ EAEn argitaratutako gaztelaniazko produktuak euskarazkoak baino arazo gehiago ditu literatur argitalpenaren sorkuntzan eta azpiegituran. Euskarazko produktuak, berriz, gaztelaniazkoak baino menpekotasun handiagoa du Administrazioarekiko eta arazo gehiago ditu Espainiako merkatuan zabaltzeko.
- ♦ Euskaraz idatzitako liburuen tirada txikia da EAeko argitalpen-industriaren ahultasun nagusienetakoa. Gainera, tiradaren tamaina are gehiago txikitu da, eta beraz, etekin gutxiago ateratzen dira saldutako unitate bakoitzeko. Hizkuntza normalizatuak kasu horietan erabiltzen dituzten irtenbideak (berrikuntzen argitalpenak murriztea tiradak handitu ahal izateko) ez dirudi arazoa konpontzeko balio dutenik.
- ♦ Berez, euskarazko argitaratzaileak arrisku handiagoa du gaztelaniazko argitaratzaileak baino, erreferentziazko merkatuak direla-eta; baina, gaur egun, esan behar da EAeko gaztelaniazko argitalpena beherakada handia jasaten ari dela. Gainera, kontuan hartu behar da ez dela enpresen kontzentrazioaren alde egin; eta kontzentrazioak enpresa babesten du, beste alde txar batzuk izan arren.
- ♦ Euskaraz idatzitako liburuen tirada txikia ahultasun handia da. Tiradaren tamaina txikitzen denean, etekin gutxiago ateratzen dira saldutako unitate bakoitzeko, eta tiradak handitzeko ez du balio berrikuntzen argitalpenak murriztea.
- ♦ Euskarazko argitalpena ezegonkorra da, batetik, merkatuaren txikitasunagatik eta, bestetik, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko argitalpenek egiten duten lehiagatik. Euskarazko liburuen merkatuaren ia erdia testuliburuak dira.
- ♦ Sarean ez da lanik argitaratzen euskaraz, zuzenean sarean **iraultzen** direnak izan ezik. Datuen arabera, Interneten euskaraz irakurtzen dutenak ez dira kuota osoaren % 5era iristen. Hori horrela da Internet denborapasarako erabiltzen delako, heziketarako baino gehiago. Sarean euskarazko argitalpen gehiago egoteko, egun duten zeregina aldatu behar dute, eta itxura berritzaileagoa hartu.

Banaketa, sustapena eta zabalkundea

- ♦ Estrategia, posizionamendu komertzial eta marketing eskasa.
- ♦ Argitalpen-sektorea enpresa banantzaileen menpe dago.
- ♦ Aukera gutxi daude produktuak EAetik kanpora zabalduko dituzten azpiegitura sendoak eta modernoak sortzeko.
- ♦ Ez dago ziurtatuta euskal argitaletxeek gaztelaniaz argitaratutako tituluak gutxieneko kopuru bat liburutegi publikoetan egotea.

- ◆ Espainian ez dago euskal produktuak banatzeko sarerik. Aukera gutxi daude produktuak EAetik kanpora zabalduko dituzten azpiegitura sendoak eta modernoak sortzeko.
- ◆ Gaztelaniazko lanak argitaratzen dituzten euskal argitaletxeek oso presentzia eskasa dute EAetik kanpo.
- ◆ Euskarazko liburuek oso laguntza eskasa jasotzen dute liburutegien sarean (produktua ez dute ondo ezagutzen, ezta saltzaileek ere). Gainera, banaketaren kostuak zentzugabeak dira.
- ◆ Saltoki handiek etekinen zati oso handia bereganatzen dute.
- ◆ Merkataritza-kate handiek ez dute ahaleginik egiten euskal argitaletxeen euskarazko eta gaztelaniazko liburuaren alde. Merkataritza-talde horien artean aipatu behar dira Eroski taldea –Durangoko Azokan eta haur eta gazteentzako liburuen arloan zerbait egin arren–, El Corte Inglés, Carrefour, Alcampo....
- ◆ Liburu-saltzaileen azpisektorea ez da batere ezagutzen, eta gainera, okerrera egiten eta desagertzen ari da gutxika-gutxika.

Eskariak eta merkatuak

- ◆ 2001eko datuen arabera, biztanleen % 52k irakurtzeko ohitura zuten, aurreko urtean bezala.
- ◆ Ehuneko horretatik soilik % 30 ziren euskarazko liburuaren bat irakurtzen zutenak (kopuru osoaren % 15), eta % 1ek euskaraz bakarrik irakurtzen zuten.
- ◆ Euskarazko liburuaren merkatua euskarazko kultur industriaren baliabideen menpe dago, eta merkatu txikia da. Eta, onenean ere, txiki izaten jarraituko du, euskararen erabilera normalizatzeko garatzen saiatu arren, merkatu elebiduna baita. Gainera, kontuan hartu behar da mendebaldean kulturak ugaltzen ari direla, eta hizkuntz aniztasuna dutela berezko ezaugarri. Horrek kultur merkatuek **elkar estaltze**a ekar dezake.
- ◆ Dirulaguntza selektiborik gabe, alegia, irizpiderik gabe egiten diren euskarazko argitalpenek arazoak sortzen dizkiote euskarari berari.
- ◆ Kultur merkatuak kulturaz kanpoko irizpideen menpe daude, gero eta gehiago.

Kultur politika

- ◆ Ez da egon EAEn egindako argitalpenei buruzko politika globalik, eta egotekotan, euskarazko liburuari buruzkoa soilik. Baina hura gehiago oinarritu da azken produktuan industrian edo banaketan baino.

- ◆ Euskal argitalpenari emandako diru-laguntza ez-selektiboak gehiago zuzendu behar dira irizpide profesionalen bidez.
- ◆ Urtero laguntza berak ematen dira. Baldintza jakin batzuk dituzten produktuak bultzatzen dira, baina, egiaz, ez zaio laguntzen argitalpen-sektoreari. Gainera, gogoratu behar da sektorea egoera txarrean dagoela, gaur egun gizartean nagusitzen diren balioen ondorioz: diru azkarra, arin bizitza, ahaleginik egin gabe... ..
- ◆ Horrez gain, erakundeak banatuta eta koordinatu gabe daude. Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen ditu laguntza gehien liburuentzako. BFAk, berriz, bizkaieraz argitaratutako aldizkariari bakarrik ematen dizkie laguntzak. AFAk, azkenik, lehenengo eskatzen dutenei ematen dizkie diru-laguntzak.
- ◆ Azken urteetan ez da ia batere elkarlanik egin sektorearekin.
- ◆ Espainiako argitaletxeetan ez dago egile euskaldunak bultzatzeko politikarik.
- ◆ Duela gutxira arte, ez zen diru-laguntzarik ematen gaztelaniaz idatzitako euskal argitalpenen zati bat liburutegi publikoetan banatzeko.
- ◆ EAEko erakundeen argitalpen-politika beste erkidego autonomo batzuetakoa baino handiagoa da. Horrek sektore pribatuaren merkatua murrizten du, erakundeen argitalpena justifikatu gabea den alor batzuetan. Pixkanaka, sektore pribatuarekin lankidetzan aritzeko, baterako argitalpenak egiteko eta azpikontratatzeko aukera sor daiteke, lehiaketaren bidez.

Gizartea

- ◆ Bizimoduaren etengabeko aldaketek eta berrikuntzek kalte egiten diote liburuak irakurtzeko ohiturari, eta eragin handiagoa dute hizkuntza gutxituetako argitalpenetan.
- ◆ Prestakuntza eta irakurzaletasuna lotuta daude, baina harreman hori ez da guztiz proportzionala.
- ◆ Lehen irakurtzen pasatzen zen denbora, lanean, ikasten, telebista ikusten, zinemara joaten, kirola egiten eta Interneten nabigatzen pasatzen du jendeak.
- ◆ Ideien trafikoa gero eta gehiago dago etekinen eta galeren logikaren menpe, irizpide kulturalen menpe baino.
- ◆ Euskarazko liburuak milintantziak erostea ez da adierazle fidagarria irakurzaletasuna neurtzeko.

MEHATXUAK

Prestakuntza

- ♦ Kontuan hartu behar da zer ikasketa-mota egiten diren. Ikasketa teknikoak nagusi dira, eta horiek ez dute irakurzaletasunik sortzen.

Sorkuntza

- ♦ Diskoaren merkatuarekin gertatzen den bezala, gaztelaniaz idazten dutenek ihes egiten dute Madril eta Bartzelonara oihartzun mediatiko handiagoaren bila eta beren lana gehiago zabaltzera. Hala, EAEko argitalpena merkatu handigoetarako igarobidea besterik ez da.
- ♦ Argitaletxeek gero eta gutxiago asmatzen dute argitalpenak egiten, liburu asko bueltatzen dira, merkatuak norabide jakinik gabeko datuak, ezusteko datuak ematen ditu... , eta horrek egiturak zabaltzeko halako beldur bat sortu du sektorean.
- ♦ Argitaletxeen kontzentrazioak literatur sorkuntzari lotutako argitaletxeen biziraupena mehatxatzen du, eta hain zuzen, argitaletxe horiek dira ideien eta pentsamenduen alorra susper dezaketanak, beren askotariko argitalpenen bidez.

Ekoizpena

- ♦ Argitaletxeen kontzentrazioak eta literatur sorkuntzari lotutako argitaletxeen biziraupen eskasak zailago egiten dute ideien eta pentsamenduen alorra suspertzea.
- ♦ Inprimatze-maila altuko enpresek ez daukate interesik euskarazko liburuetan, tirada txikiak egiten baitira. Ondorioz, kalitate gutxiagoko enpresak kontratatzen dira, eta batzuetan, EAEtik kanpo.

Banaketa, sustapena eta zabalkundea

- ♦ Inbertsio handiak egin behar dira teknologiak eskuratzeko – ekipamenduak, konexioak eta tresnak –, eta horrek edukien ordainketak mugatzen ditu.
- ♦ Irakurketarako teknologia berriak gutxi erabili eta aprobetxatu dira. Teknologia horiek merkatu osagarri bat izan daitezke etorkizunean.
- ♦ Hainbat argitaletxe handik (Planeta, kasu) balio-kate bertikala dute, eta autonomia erkidegoen barruko eskaria ase dezakete prezio hobean.
- ♦ 11 banaketa-taldek Estatuko merkatuaren % 80 bereganatzen dute, eta interes gutxi dute liburu berezituak edo zabalkunde txikikoak banatzeko.

- ♦ Liburutegi-kateak erraldoi bihurtzen ari diren bitartean, argitaletxeek txiki izaten jarraitzen dute, eta eskaria kudeatzen dutenen menpe geratzen dira. Fenomeno horrek are arazo handiagoak sortzen dizkio euskarazko liburuari.

Eskariak eta merkatuak

- ♦ Europa, Madril etaartzelonako datuekin alderatuta, irakurtzeko eta liburuak erosteko ohituren maila erlatiboki baxuagoa da EAEn, egunkariak irakurtzeko maila izan ezik.
- ♦ Sarearen kulturaren ondorioz, irakurketa laburrak egiteko eta idazkera zurrunerako ohiturak sortzen dira.
- ♦ Gaur egun, IKTbak mehatxu bat dira argitalpen-sektorearentzat, aukera bat baino gehiago. Industria-sektoreak berak ere argitalpenaren mundu digitalean duen lekua berriz planteatu behar izan du. (Adobe-k pisua galdu liburu-azokarik garrantzitsuenean, Frankfurtokoan).
- ♦ ITBen merkatuek zerbitzuak emateko, dokumentaziorako, denborapasarako eta lanerako funtzioa dute, eta ez hainbeste liburutegi-funtzioa. Gainera, une jakin batean erabiltzekoak dira, ez iraunkorrak.
- ♦ Egindako saiakeren ondoren, ez da euskarazko lanen sareko argitalpenik egingo, epe ertainean behintzat.
- ♦ Teknologia berriak nahiko gutxi erabili eta aprobeixatu dira, eta gizarteko talde berriek sarea erabiltzeko goranzko joera motedu egin da.
- ♦ Euskarazko liburuak militantziaz erosten dituztenen kopurua –gurasoek seme-alabei, adibidez– jaitsi egin da, eta beraz, argitaratzaileek gehiago hobetu behar dituzte beren proposamenak. Gainera, liburutegiek ere lehia handia sortzen dute.

Politikak

- ♦ Liburutegiek aukera bat ematen diete euskarazko argitalpenei, lege ezarrita baitago liburutegietako katalogoen % 10 gutxienez euskal argitaletxeetatik ekarritako liburuek osatu behar dutela.

Gizartea

- ♦ Kultura edo ezagutzaren gisako balioak krisian daude –baita unibertsitateko ikasleen artean ere–, eta kultura teknologikoa ari da nagusitzen. Horrek hitzari (idatzizkoari) egiten dio kalte, batez ere.
- ♦ Irakurleak zokoratzeko arriskua dago.

3. JARDUERA-LERROAK

1. Politikak, koordinazioa eta ekimen publikoak.

- Pizgarri ekonomikoen sistema ezartzea literatur sorkuntza bultzatzeko. Hala, euskarazko sorkuntzak dakarren galera ekonomikoa konpentsatzen da.
- Itzulpenari laguntzeko politikak: liburuaren euskarazko itzulpenak eta euskaratik beste hizkuntzetara egindako itzulpenak bultzatzea (baita gaztelaniaz idazten duten euskal autoreenak ere).

2. Gizartea

3. Enpresa-sarea

3.1. Baliabideak bultzatzea (prestakuntza, enplegua, lankidetzeta...).

- Sektorearen enpresa-egiturak indartzea, enpleguari eta prestakuntza jarraituari laguntzeko politika baten bidez.
- Prozedurak normalizatzea (fitxaren egitura, beste testuinguru batzuetako baliabideak erabiltzea, sinergiak...)
- Diru publikoaren bidez, ikastetxeetan irakurzaletasuna bultzatzeko eta dinamizatzeko profesionalak gaitzea.
- “Literatura” eta “hizkuntza” ikasgaiak modu bereiztuan bultzatzea (adibidez, literaturaren ezagutza neurtzeko olinpiada batzuk eginez).

3.2 Inbertsioak eta finantziarioa

- Industria- eta finantza-politikaren arloko neurriak aplikatu behar dira hainbat arlotan (ekoizpena hobetzea, finantza-egitura, teknologietan eta ekipamenduetan egindako inbertsioa, prestakuntza eta enplegua) liburuaren sektorearen enpresa-egiturak indartzeko.

4. Enpresa-sarearen antolaketa (informazioa, araudiak, asoziazionismoa eta balizko erakunde bultzatzaileak).

- Euskal liburuaren alor guztietara zabaltzeko behar da. Horretarako, argitalpen-sektoreak eta ekimen publikoek batera egin behar dute lan argitalpenak planifikatzeko, prezioaren lehiakortasuna handitzeko, argitaletxeak sustatzeko...

5. Produktuari buruzko irizpideak (zer nahi den eta zer den posible) eta irizpide horiek euskararekin edo kulturarekin eduki dezaketen erlazioa

- Kalitatearen alde egin behar da, hori baita kultura gutxitu bat ikusarazteko baliabide seguruetako bat.

6. Balio- eta kudeaketa-kateari buruzko alderdiak

6.1. Teknologia, I+G+B

- Ekoizpena eta liburutegien kudeaketa modernizatzen jarraitzea, teknologia berrien eta Interneten bidez. Gainera, kontuan hartu behar da Internet bidezko salmenta irteera ona izan daitekeela gaztelaniazko lanak argitaratzen dituzten euskal enpresentzat.
- IKTei etekina atera, eta liburuak digitalizatu eta argitalpenen katalogo iraunkor bat edukitzea, liburuak ez agortzeko.

6.2. Sorkuntza

- Euskal egileak sustatzeko sistema bat hitzartzea.

6.3. Ekoizpena

6.4. Merkaturatzea/sustatzea

- Liburutegien sarea indartzea, gaur egun, produktuak banatzeko eta merkaturatzeko bide nagusia baita; eta saltoki handiekin negoziatzea.
- Liburu azoka gutxi batzuk –eraginkorrak direnak– duin bihurtzea, erakundeen laguntzaren bidez, Durangon edo Bilbon egiten den bezala (jarduera paraleloak, egileen presentzia...). Azoka ibiltariak liburutegiak eta banatzaileak dinamizatzen dituzte.
- Latinoamerikako eta AEBtako argitaletxe txikien katalogoak saltzeko ETEi laguntzak emateari buruz hausnartzea. Kontuan hartu behar da enpresa horiek gaztelaniazko lanak argitaratzen dituztela, batez ere.
- Literatur aldizkariren bat egon dadin bultzatzea.
- Euskal argitaletxeen lanei buruzko informazioa emango duen eta lan horiek bultzatuko dituen web gune bati buruzko interesa, bereizkeriak saihesteko.
- Liburutegien merkatuari eta liburutegiak modu erregularrean erabiltzeko kultur gune izateari garrantzia ematea.

6.5. Zabaltzea

- Helduen zein haurren irakurzaletasuna bultzatzea, aisialdirako jarduera gisa, eta liburuak duin bihurtzea, fundazioak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak sortuz.

- Nazio mailako komunikabidea den neurrian, ETB erabiltzea liburua modu entretenigarrian zabaltzeko (literaturari edo liburuen sustapenari buruzko programaren bat...).
- Testuliburuez bestelako liburuak irakurtzea bultzatzea unibertsitatean.
- Liburutegi publikoei eta geletako liburutegiei laguntzak ematea argitalpen-funtsak handitzeko eta aldatzeko. Halaber, liburutegi horiek teknologia berrietara egokitzen laguntzea katalogo, datu-base, software eta hardware-en... bidez.
- Egileak ikastetxe eta unibertsitateetako ikasleekin harremanetan jartzea, eta ikasleek literatur lanekin duten harremana eskolatik kanpora ateratzea.

6.6. Kudeaketa-eredua hobetzea (*ikastaroak, topaketak, aholkularitzak, mintegiak...*)

7. Merkatua dinamizatzea (marka, labela...) eta nazioarteko bihurtzea

- Euskal argitaletxeen artean hitzarmen-estrategia bat martxan jartzeko eta beren eskariak nazioarteko bihurtzeko beharra.
- Nazioarteko marketing-ari eta esportazioari laguntzak ematea, argitaratzaileak eta idazleak nazioarteko merkatuetan egotea bultzatuz.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA-LERROAK

1. Euskal liburuari buruzko politika koordinatua garatzea, erakundeen jardueraren esparru global baten barruan –foru-aldundiak barne direla–. Lan horretan, argitalpen-sektoreek parte hartu behar dute, eta finantza-sektoreek parte hartzea bultzatu behar da. Bestalde, euskarazko liburuak arazo handiagoak ditu, eta horiek konpentsatu behar dira politika horren bidez.

2. Liburuaren sektorearen enpresa-egiturak indartzea industria-politikaren arloko neurriak hartuz hainbat arlotan (ekoizpena hobetzea, finantza-egitura, teknologietan eta ekipamenduetan egindako inbertsioa, prestakuntza eta enplegua). Bestalde, euskal liburuaren lehiakortasuna hobetu behar da, produktuak inprimatzeko eta merkaturatzeko kostuak murrizteko eta banaketa hobetzeko.

3. Liburuaren Erakundea edo kultur industriak bilduko dituen erakunde orokorrago bat sortzea, argitalpen-sektoreari eman beharreko diru-laguntza publikoak zuzentzeko eta ebaluatzeko, kanporako sustapen-planak egiteko, irakurzaletasuna bultzatzeko, literatur egilea sustatzeko, argitalpen publiko ez-profesionala eta pribatua merkaturatzen laguntzeko eta sektoreari hiru lurraldeetan tratamendu bera ematen zaiola ziurtatzeko.

4. Helduen zein haurren irakurzaletasuna bultzatzea, aisialdirako jarduerak gisa, eta liburuak dain bihurtzea, fundazioak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak sortuz. Bestalde, idazleak bultzatu behar dira irakurzaletasuna bultzatzen lagun dezaten ikastetxeetan, eskoletako liburutegietan, unibertsitatean...